

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko MARTXOA


Euskal AEko industri jarduera %11,0 hazi zen 2003ko martxoan

2003ko lehenengo hiruhilekoan Industri Produkzioaren Indize Orokorra %2,9 igo.

2003ko martxoan, %11,0 igo zen Euskal AEko industri jarduera, 2002ko urteko hil beraren aldean, 2003ak aurreko ekitaldiak baino hiru lanegun gehiago izan dituelako, EUSTATEk landutako datuen arabera. Datuak balio homogeneotan neurtu ahal izateko lan-egutegiaren eragina zuzenduta, martxoko urte arteko tasak %2,1eko aldakuntza negatiboa agertzen du.

Datu horiekin, urteko lehenengo hiru hilabeteetako tasa metatuak, aurreko urteko aldi beraren aldean, %2,9ko hazkundera izan du balio absolutuetan neurtuta, eta %-0,1ekoa lan-egutegiaren balio homogeneotan neurtuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2003



Iturria: EUSTAT

2003ko martxoan, urte arteko aldakuntzarik positiboenak sektore hauei egokitu zaizkie: ehungintza eta jantzigintza (%24,4), kimika-industria (%18,7), material elektrikoa (%17,8), kautxua eta plastikoa (%17,5), garraio-materiala (%14,8), metalgintza eta metalezko gaiak (%11,4) eta ez-metalezko industria (%11,1) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: petrolio-fintzea (%-18,4) eta larruaren eta oinetakoen industria (%-9,1) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo hiruhilekoan, hazkunde metatu handienak sektore hauei egokitu zaizkie: ehungintza eta jantzigintza (%8,1), garraio-materiala (%8,0), kautxua eta plastikoa (%7,7), zurgintza (%7,6) eta material elektrikoa (%7,1) arloei, besteak beste.

Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: larruaren eta oinetakoen industria (%-13,2), petrolio finntzea (%-11,1), metalezko eta ez-metalezko meak (%-10,2) eta bestelako manufakturak (%-7,1) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2003ko martxoan, hiru banaketen urte arteko tasak igo dira balio absolutuetan: ekipo-ondasunek %11,4ko hazkundera izan dute, bitarteko ondasunek %10,2koa eta kontsumo-ondasunek %9,6koa.

Lehenengo hiruhileko honetan, hiru banaketen hazkunde metatuek honako datuak ematen dizkigute: ekipo-ondasunek (%4,3) eta bitarteko ondasunek (%3,7) hazkunde nabarmenagoa izan dute kontsumo-ondasunek (%0,5) baino.

Lehenengo hiruhilekoko joera metatua nahikoa antzekoa izan da hiru herrialdeetan: %3,1 hazi da Araban, %2,9 Bizkaian eta %2,8 Gipuzkoan, balio absolutuetan.

Taula: 2003ko MARTXOA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasa (%)

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2002ko urtarril-martxoko tasa metatua		2003ko urtarril-martxoko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	11,0	-2,1	-4,3	1,1	2,9	-0,1
Araba	14,0	0,0	-3,2	2,5	3,1	-0,1
Bizkaia	10,0	-2,3	-3,7	1,4	2,9	0,1
Gipuzkoa	10,5	-3,1	-5,5	0,1	2,8	-0,2
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	10,2	-1,8	-4,8	0,0	3,7	0,9
Kontsumo-ondasunak	9,6	-3,9	-1,7	4,3	0,5	-2,7
Ekipo-ondasunak	11,4	-4,4	-4,7	2,1	4,3	0,4

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa oharrak Interneten: www.eustat.es